

## JOSE MARI LARRARTEREN HERIOTZEAN (\*)

Hil-ezkilak entzun dira euskaldunen lurraldean. Jose Mari itzali zaigu. Berriak ez gaitu ezustean harrapatu oraingoan, edo ez osoki ezustean. Eri baitzen aspaldixko gure adiskide ona. Ber-berak hitz egiten zuen bere osasun hauskorraz elkar ikusten genuenetan. Lasai, ordea, irriñoa galdu gabe. Barneko indarra zuen laguntza eta oinarri, eta, segur aski, San Pauloren hitz ezagun haiek zerabiltzan gogoan: «Heriotza, non dago zure garaipena? Heriotza, non dago zure eztena?» (*1 Kor.*, 55).

Langile zintzo nekaezina genuen Jose Mari. Bizitza egokitu zitzaion leku guztietan (eta ez ziren gutxi izan) nabarmendu zen haren lana, lan isila, irakasten, iker-tzen, itzultzen. Euskaltzaindian urte askotan aritu izan da zenbait batzordetan, beti eskuzabal, beti gogotsu. Haren iritziak eta aholkuak estimatuak ziren. Hizkuntza ezagutzen zuen erro-errotik, eta euskararen sena, sen segurua, aintzat hartzen genuen.

Bizitzak horrelako gauzak ditu, eta azken eskatu genion iritzia haren herriaren izenaz izan zen. *Bidania* eta *Goiatz* izen zahar jatorrak, ahotan eta paperetan betidanik ibiliak, nahi baikenituen defendatu (eta *Bidegoian* berrikeria, sasiko sorkaria, behingoz baztertu). Atseginez entzun zidan Jose Mari Gasteizen, 16 eta 17. mendeetan *el Licenciado Bidania*, *El Lic. Bidanico* eta *el Licenciado Vidinia Medico* ageri dela Udal-etxean kargudun.

Merezimendu osoz, 1987an izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle Jose Mari Larrarte, eta 2002an ohorezko euskaltzain. Haren hutsunea larria izango da. Inoiz ez dugu ahaztuko euskaltzainkide prestu eta langilea.

Betiereko atsedean gerta dadila.

*Henrike Knörr*

---

(\*) Testu hau egileak, euskaltzainburordeak, Jose Mari Larrarte pasiotarraren hiletan irakurri zuen, Urretxun, 2004ko urriaren 25an.